

Hamahirugarrena. Izena: Kontabilitatea eta Kudeaketa Ekonomiko-finantzarioa

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.b) artikulua: Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko edo, interesdunak eskatuta, kontratuaurreko neurriak aplikatzeko behar den tratamendua. DBEOren 6.1.c) artikulua: Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzeko beharrezkoa den tratamendua. Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua. Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko erregelamendua.
- b) Tratamenduaren helburuak: Nafarroako Parlamentuaren jardura ekonomiko eta finantzarioaren ondoriozko dokumentuak, kontabilitateko egoera-orriak eta kontratazio-espeditenteak izapidetzea, kontrolatzea eta haien jarraipena egitea.
- c) Ukitutako pertsonak eta kolektiboak: Foru parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko langileak, hornitzaileak eta Nafarroako Parlamentuarekin harreman profesionala duten pertsona fisiko edo juridikoak.
- d) Datu-kategoriak:
- NAN/IFZ
 - Izena eta abizenak, edo sozietatearen izena
 - Helbidea
 - Herria
 - Posta-kodea
 - Telefonoa
 - Faxe
 - Helbide elektronikoa
 - Bankuko kontu-zenbakia
- e) Hartzaile-kategoriak: Urtero lagako zaizkio Nafarroako Zerga Ogasunari pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta hirugarrenetik eragiketei buruzko datuak. Urtero, Kontuen Ganberak auditoria bat egiten du. Eta banku-erakundeei, transferentziak eta ordainketa-aginduak exekutatzeko beharrezkoa denean.
- f) Nazioarteko transferentzia: ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoaren arabera. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: dpd@parlamentodenavarra.es.